

## Aurkezpena

---

Nabarmena da Euskal Herriko Folklorearen historian dantza eta musika-tradizionalak izan duen, eta oraindik duen, tokia: ohiturazko, artearen inguruko nahiz gorputz espresioako adierazpide horiek inportanteak izan dira, bakarkakoak nahiz taldekakoak. Adierazpide horiek bezain inportanteak dira, noski, azken urte hauetan ondare hori defenditzen eta zaintzen, ondare horri eusten eta segida ematen hainbeste lan egin duten lagunak ere.

Aurreneko Jardunaldi hauen goiburuari kasu eginez, “Dantza eta Musika Tradizionalaren Topaketak. Egungo egoera eta etorkizunerako bideak”, egungo egoeraren balorazioa, baita etorkizuneko ere, hainbat ikuspuntutatik egin daiteke; noski, ikuspuntu horiek ematean, norbere izenean nahiz talderen baten izenean, aztertzen ari garen gaiaren eskema zein den kontuan hartu beharko da: Ikerketa; Irakaskuntza eta Sustapena; Zabalkundea; Ikuskizun eta Erakustaldiak.

Gauzak horrela, Gerediaga Elkartek Abadiñon duen Astola etxean izan ziren Jardunaldiak, elkarte hark Eusko Ikaskuntzari utzi baitzion bertako hitzaldi-aretoa erabiltzen, 2005eko otsailaren 26an, goiz eta arratsaldez.

Topaketa hauetan, Euskal Herriko dantza eta musika tradizionalaren inguruan, batik bat aspaldiko urteetan lanean aritu den jendea elkartu nahi izan zen.

Hainbatek etorri ezina azaldu bazuen ere, beste batzuek gogoz etorri ziren beren pentsakizunak esatera.

Hogeita bost edo hogeita hamar bat lagun elkartu ziren topaketetan, hainbat herritatik etorritakoak, eta gehientsuenak topaketen gaiekin lotura estua zutenak.

Topaketen egitaraua, hauxe izan zen:

### Goizean

- Emilio Xabier Dueñas (Folklore ikertzailea, Etnografi-argazki egilea eta hainbat publikazio egin dituen), *“Un horizonte difuso: danza y tradición”*.
- Karlos Sánchez Ekiza (Elko Folklore Sailako Lehendakaria (une haietan), Lizentziatua Historian, Doktore Artez, Etnomusikologoa eta hainbat publika-

zio eta artikulua egin dituen), *“Música y danza tradicional vascas en la época posmoderna”*.

### **Arratsaldean**

- Josu E. Larrinaga (Soziologoa, ikertzailea eta hainbat publikazio egin dituen), *“Folklore y educación: hacia una nueva metodología”*.
- Juan Mari Beltran (Herri Musikaren Txokoa, musikaria, hainbat folk taldeko kidea, hainbat audio-grabazioren egilea, etab.), *“Herri musikaren alde batzuk”*.

### **Moderatzailea:**

- José Patricio Aldama (txistularia, ikertzailea eta historialaria).

### **Gonbidatuak hauek izan ziren, ordena alfabetikoan:**

- Jose Jabier Abasolo *“Tiliño”* (lurretako Mikel Deuna taldean dantzari izana).
- Joseba Altube (Barakaldoko Laguntasuna Euskal Dantza Taldeko kidea eta bertako Zuzendaria).
- Oier Araolaza (ikertzailea, idazlea eta kazetaria dantza tradizionalan, dantzaria eta *“dantzan.com”* webgunearen sortzailea).
- Jose Mariano Barrenetxea (albokaren inguruko hainbat libururen egilea).
- Sabin Egiguren (dantza-maisua eta Bilboko Bizkai Euskal Folklore Elkarteko Zuzendaria).
- Pedro Elosegí (Gasteizko Folklore Akademiako Zuzendaria).
- Ana Gallo (dantzaria eta Bizkai Euskal Folklore Elkarteko kidea).
- Xabier Mendizabal (Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarreko Lehendakaria).
- Patxi Perez (dantzaria, musikaria, dantza-maisua eta hainbat audio-grabazioren egilea).

Hurrengo orrietan, ponentziak daude. Haietako bakoitzaren ondoren, mahai-inguruetan hitz egin eta eztabaidatu ziren kontuen laburpen bana dator; batzuetan gaiarekin lotura estua dute, beste batzuetan ez. Testu horien transkripzioa, laburpena eta itzulpena Xabier Etxabek egin ditu.

Mahai-inguruetako partaideren batek behin baino gehiagotan hitz egin badu, izen hutsarekin izendatuko zaio; izen berekoak bat baino gehiago egonez gero, abizena ere erantsiko zaie. Bada, bestalde, ezagutu ez dugun hizlaririk.

Emilio Xabier Dueñas  
*Folklore Sailako Lehendakaria*

## Presentación

---

La historia del Folklore de Euskal Herria no puede obviar la importancia que ha tenido, y en cierta forma continúan teniendo, las manifestaciones costumbrista-artística-corporales de las danzas y músicas tradicionales, en conjunto o por separado, ni las personas que en estos últimos años han ofrecido gran cantidad de su tiempo para defender, conservar, preservar y practicar el mantenimiento de dicha porción de nuestro legado cultural.

Como indica el título de estos primeros “Encuentros de Danza y Música tradicionales. Estado actual y perspectivas de futuro”, la valoración sobre la situación actual, así como el devenir, pueden determinarse en base a diferentes posiciones, promovidas por individuales y colectivos, siempre teniendo en cuenta el esquema por el cual se perfila la filosofía de la temática en cuestión: Investigación; Enseñanza y Fomento; Divulgación y Difusión; Espectáculo y Exhibición.

Por todo ello, en la sede de Gerediaga Elkartea, casa Astola de Abadiño, cuyo salón de actos a bien tuvo el ceder a Eusko Ikaskuntza, se celebró la jornada el día 26 de febrero de 2005, en sesiones de mañana y tarde.

De esta forma se quiso reunir alrededor de una mesa a diferentes personas ligadas, principalmente, desde hace ya muchos años, al mundo de la danza y música tradicionales de Euskal Herria.

Si bien por un lado excusaron su asistencia varios invitados, otros acudieron desinteresadamente para exponer sus criterios y valoraciones.

La participación fue en torno a las 25 y 30 personas, llegadas de diferentes puntos del país y, salvo excepciones, relacionadas directamente con los temas de los encuentros.

El programa, en cuanto a ponencias se refiere, fue el siguiente:

### **Sesión de la mañana**

- Emilio Xabier Dueñas (investigador de Folklore, fotógrafo etnográfico y autor de diferentes publicaciones), “Un horizonte difuso: danza y tradición”.

- Karlos Sánchez Ekiza (Presidente de la Sección de Folklore de Eusko Ikaskuntza, en aquellos momentos, Licenciado en Historia, Doctor en Arte, Etnomusicólogo y autor de diversas publicaciones y artículos), “Música y danza tradicional vascas en la época posmoderna”.

### **Sesión de la tarde**

- Josu E. Larrinaga (Sociólogo, investigador de Folklore y autor de diversas publicaciones), “Folklore y educación: hacia una nueva metodología”.
- Juan Mari Beltrán (*Herri Musikaren Txokoa*, músico, componente de grupos folk, autor de *compact discs*, etc), “*Herri-musikaren alde batzuk*”.

Hizo las veces de moderador:

- José Patricio Aldama (*txistulari*, investigador e historiador).

Los invitados, por orden alfabético, fueron los siguientes:

- José Jabier Abasolo “Tiliño” (ex *dantzari* de Mikel Deuna, de Iurreta).
- Joseba Altube (miembro y Director de Laguntasuna Euskal Dantza Taldea, de Barakaldo).
- Oier Araolaza (investigador, escritor y periodista de danza tradicional, *dantzari* y creador de la página web *dantzan.com*).
- José Mariano Barrenetxea (autor de diferentes libros sobre la *alboka*).
- Sabin Egiguren (profesor de danza y Director de Bizkai Euskal Folklore Elkartea, de Bilbo).
- Pedro Elosegui (Director de Gasteizko Folklore Akademia).
- Ana Gallo (*dantzari* y miembro de Bizkai Euskal Folklore Elkartea).
- Xabier Mendizabal (Director de Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarra).
- Patxi Pérez (*dantzari*, músico, profesor de enseñanza de danza y autor de varios *compact discs*).

Lo que a continuación se presenta son las ponencias. Detrás de cada una de las mismas, se incluye una transcripción abreviada de lo que se pudo dialogar y/o discutir; bien acerca de la misma, bien al margen. Este trabajo de transcripción y resumen, así como las traducciones han sido realizados por Xabier Etxabe.

Una vez que el exponente en la mesa redonda realiza más de una intervención, únicamente se le determina por el nombre, a excepción de los que coinciden en el mismo, añadiéndose el apellido correspondiente. En algunos casos desconocemos la identidad de la persona que efectúa el comentario.

Emilio Xabier Dueñas  
*Presidente de la Sección de Folklore*